

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

L.G.: SS-0197/03



www.zizurkil.com

XIII. azoka berezia

zizurkil 2010




Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2009-2012

urria 2010 | 85. zenbakia | UDAZKENA

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

IKASTAROEN HASIERA



Eskulanak,
mantentze
Gimnasia,
Yoga,
Pilates,
Marrazketa...

Urriko lehenengo astea.

KULTURA:

KZ GUNEA

Tutoritzak urriaren 7 eta 21ean, 09:00etatik 13:00etara izango dira.

EUSKERA:

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK: Aurtengoan, Zizurkilgo Udalak, Villabonakoarekin batera, herrian bertan euskara ikasteko saiakera berezia egin du eta urrian sortu diren taldeak martxan jarriko dira. Diruz lagunduko dira ikastaro hauek: Zizurkilgo erroldatua dagoen edozein pertsona ikastaro amaieran %85eko asistentzia bermatzen badu, matrikularen %75a (pertsoneko 400 eurotako gehiengoarekin). Informazioa gehiago: Euskara Zerbitzuan, 943-692495 telefonoan.

MINTZALAGUNA:

Zure euskara maila hobetu nahi duzu astean behin ordubeteko saioa eginez? Modu lasaian, gehien gustatzen zaizuna eginez eta jende berria ezagutuz. Azaroan jarriko ditugu martxan hiru pertsonez osaturiko taldeak: bi euskaldun berri eta euskaldun zahar bat. Anima zaitetz! Euskara Zerbitzuan informazio gehiago.

TEODORO HERNANDORENA IX. IPUIN LEHIAKETA: Kalean dira dagoeneko oinarriak. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute eta bost maila ezberdin antolatuta dira adinen arabera (A. Maila: 6-8 urtekoena; B. Maila: 9-11 urtekoena; C. Maila: 12-13 urtekoena; D. Maila: 14-16 urtekoena eta E Maila: 17 urtetik gorakoena). Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 18a bitartean, egun hau barne, eguerdiko 14:00ak baino lehenago Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.



2010-10-17: ZIZURKILGO XIII. AZOKA BEREZIA

Urriak 17 igandea

11:00-14:30/16:30-19:30:

Baserriko produktuak eta artisauak.

Autobusa doan Bulandegi auzoko errotondatik edo Zubiaurretxotik Zizurkilgo Goiko Plazara egun guztian zehar.

11:00: **Kantu jira.** Azoka euskal kantuz alaituko dute.

12:00: **Haurrentzat jolasak Udaletxe aurrealdean.**

13:00: **"Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria"**
Zizurkilgo janari postu hoberenari.

14:30: **Txahal erre jatea Zimiterioan.**

Txartelak salgai Zentroa, Pantxikane eta Atxulondo tabernetan. Prezioa: 15 euro.

17:00: **Haurrentzat poniak eta jolasak.**

18:00: **Husky txakurren erakustaldia.**

BESTELAKOAK:

2010-20-09: **GARAGARDO GAUA** Zizurkil Goian.

2010-10-12/17: **JUBILATUEN IRTEERA GALIZIARA**